

MOCION PRSENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL DE EH-BILDU RELATIVA A LA DISCRIMINACION DE LA DIPUTACION FORAL DE ALAVA A LOS MUNICIPIOS EN LA GESTIÓN DE AGUA.

ARABAKO FORU ALDUNDIARI LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ERAKUNDE GUZTIEKIN UR KUDEAKETARI DAGOZKION LANEN INGURUKO ELKARLANA ETA PARTEHARTZEA OREKATUA IZAN DEZAN ESKATZEKO MOZIOA

Ez da lehen aldia izan eta beste behin Foru Aldundiak Arabako Toki Erakundeekin jarrera diskriminatzailea adierazi du. Horrela gelditu zen jasota pasa den urteko abenduaren mozio bat onartu zenean. Bertan, Arabako Foru Aldundiari eskatzen zitzaion “Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakunde guztiekin elkarlana eta partehartze orekatua izatea ur zikinen araztegien ustiapen, mantenu eta kontserbazio lanetan”

Hala ere, Asparrengo eta Zuiako udalek ez dute oraindik jaso dagokien finantzazioa nahiz eta mozio hori ingurumeneko Batzordean onartu ostean eskatu zuten.

Berriki jakin izan dugu, pasa den abenduaren 28an, Arabako Ur Patzuergoa-Consorcio de Aguas de Alava izendatu berri duten partzuergoari 500.000 euroko diru-laguntza ematea onartu zutela Arabako Lurralde Historikoaren Ur Patzuergo berria abian jartzeko asmoz.

Berriz ere, uraren kudeaketan eskumena duten toki erakunde gutxi batzuei mesedea egiten diete, Araban existitzen diren 340 toki erakundeetatik 73 erakundeei hain zuzen, eta horrek ezinegon handia sortu du, herrietan ulertzen delako, lehen eta bigarren mailako toki erakundeak daudela gure lurraldean. Urteak daramatzagu entzuten Ingurumen Diputatuaren ahotik, uraren kudeaketa arrunta ezin daitekeela beste instituzio batetik diruz lagundu eta erabiltzaileen tasen bitartez finantzatu beharko litzatekela gastu hau. Hau izan da lurraldeko Toki Erakundeak, Arabako Partzuergo zentralizatu batean sartzera konbentzitzeko erabili izan duten argudio garrantzitsuenetako bat, eraginkortasun ekonomikoa helburu. Argudio faltsuak erabili ditu Foru Gobernuak, esaterako, onartutako 500.000 euroko diru-laguntza kontuan hartuta Zigoitiako Urkideztari, proportzioan, 110.000 euroko kostua egokituko litzaioke eta gaur egun Urkideztza honi dagokion ohiko gastua 55.000 euro inguruko da, kostu erdia hain zuzen ere. Denborak esango digu non amaitzen duen arabar guztiena den diru horrek, adi egon beharko gara.

Argi geratzen da Arabako Foru Aldundiak uraren kudeaketan eskumena duten toki erakunde gutxi batzuei mesede egiten diela beste behin ere, 340 toki erakundeetatik 73 erakundeei hain zuzen eta horrek ezinegon handia sortu du, herrietan ulertzen delako, lehen eta bigarren mailako toki erakundeak daudela gure lurraldean.

Arabako Foru Aldundiak edo beste edozein instituziok Urkideztza bat sortzeko duten zilegitasuna zalantzan jarri gabe, ez dugu begi onez ikusten kasu honetan Foru Gobernuak egin duen kudeaketa. Zalantzarik gabe, zentralizazio ahalegin horrek zauriak sortu ditu lurralde osoan zehar eta denbora beharko da zauri horiek sendatu ahal izateko. Ez dago batere argi momentu honetan, Urkideztza berrian – bere borondatez edo behartuta- sartzeko pausua eman duten erakundeen zein kanpoan geratu diren gehiengo batek etorkizunean pairatu ditzaketan ondorioak zer nolakoak izango diren.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herria Bilduko Udal taldeak MOZIO hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartu dadin:

1. Lapuebla de Labarcako Udalak Foru Aldundiari eskatzen diote, hala eskatzen duten Arabako Toki Erakunde zein Urkideztza guztiei, ur kudeaketaren gastuetarako abenduaren 28ko 842/2018 Akordioaren bitartez Arabako Ur Partzuergoari emango zaion diru-laguntza kopurua modu proportzionalen ordaindu diezaien.

2. Lapuebla de Labarcako Udalak akordio hau Arabako Foru Aldundiari, Arabako Batzar Nagusiei eta Udalerriko Kontzeju guztiei bidaliko die..

Lapuebla de Labarcan 2019ko otsailaren 12an

MOCIÓN POR LA QUE SE INSTA A LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA A COLABORAR Y PARTICIPAR DE MANERA ECUÁNIME CON TODAS LAS ENTIDADES LOCALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA, EN TODO LO RELATIVO A LA GESTIÓN DEL AGUA.

No es la primera vez que el Departamento de Medio Ambiente aplica un trato discriminatorio hacia las Entidades Locales de Araba tal y como quedó de manifiesto en las Juntas Generales con la aprobación de la moción 89/2018, de 29 de noviembre, por la que se insta a la Diputación Foral de Álava a colaborar y participar de manera ecuánime con todas las entidades locales del Territorio Histórico de Álava, en todo lo relativo al servicio de explotación, mantenimiento y conservación de las estaciones depuradoras de aguas residuales.

Pese a ello, hoy es el día en que Ayuntamientos como Asparrena y Zuia aún no han recibido la financiación que les corresponde y que reclamaron a raíz de la aprobación de dicha moción en la Comisión de Medio Ambiente y Urbanismo.

Recientemente hemos sido testigos de un nuevo episodio de clientelismo político al que nos tiene acostumbrado este Departamento dirigido por el Sr. Galera, ya que el pasado 28 de diciembre acordó "Aprobar la subvención a favor del Consorcio de Aguas de Troperagain, con nueva denominación "Arabako Ur Patzuergoa – Consorcio de Aguas de Álava", por importe de 500.000,00 euros para la puesta en funcionamiento del nuevo Consorcio de Aguas del Territorio Histórico de Álava. Uno de los principales argumentos que la Diputación ha defendido ante las Entidades Locales para su adhesión en el nuevo Consorcio, ha sido durante años, que el gasto en la gestión del agua no puede subvencionarse y se debe financiar a través las tasas de las personas usuarias por lo que, centralizar la gestión en un solo Ente sería más económico. Por poner un ejemplo, por esa proporción, al Consorcio de Zigoitia le corresponderían 110.000 €, sólo para los gastos corrientes de gestión mientras que, en la actualidad, tiene un gasto aproximado 55.000 €, justo la mitad. Esa es la eficiencia económica de los grandes gestores, exactamente gastar el doble. Con el tiempo veremos dónde acaba ese dinero.

Lo evidente, es que la Diputación vuelve a favorecer económicamente a una minoría de Entidades Locales competentes en la gestión del agua, 73 de las más de 340 que existen en Araba, generando un gran malestar y una sensación de que Diputación considera que existen Entidades Locales de primera y de segunda en nuestro territorio.

Siendo legítima la iniciativa que tiene Diputación Foral de Araba o cualquier otra institución de impulsar un nuevo Consorcio, es evidente que la gestión que este Gobierno Foral está siendo muy deficiente. En su afán centralizador y de control del agua del territorio, el Gobierno Foral ha generado graves heridas que tardarán en sanar a lo largo y ancho del territorio, con consecuencias aún impredecibles tanto para las Entidades que voluntariamente o de manera forzada decidieron entrar en ese nuevo Ente, como el resto de Entidades Locales que no han optado por esta opción.

Por todo ello, el Grupo Municipal de Euskal Herria Bildu presenta la siguiente MOCIÓN para su debate y aprobación en Pleno:

1. El Ayuntamiento de Lapuebla de Labarca insta a la Diputación Foral de Araba a subvencionar los costes de la gestión del agua de las Entidades Locales o Consorcios de Araba que lo

soliciten, por importe proporcional a la propuesta para el Consorcio de Aguas de Álava en el Acuerdo 842/2018, de 28 de diciembre.

2. El Ayuntamiento de Lapuebla de Labarca remitirá el acuerdo a la Diputación Foral de Álava, a las Juntas Generales de Araba y a los Concejales de nuestro municipio.

En Lapuebla de Labarca a 12 de febrero de 2019